

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Ezinbestekoa da, enpresa bat aurrera eramaterako orduan, zenbait aliatu edota enpresa “laguntzaile” identifikatzea. Izan ere, honen bitartez, emaitza hobekoak lortuko ditu enpresak. Aliantza hauek 4 taldetan bereizten dira, gure kasuan, baliagarria gerta liteke, gure lehiakidea ez den enpresa batekin aliantza estrategiko bat sortzea. Esate baterako, aliantza mota hau jarraitzeak, eta hortaz beste enpresa batekin elkarrekin lanean aritzeak emaitza hobekoak ziurtatuko dizkigu.

Gure kasuan, aliatu bezala aukeratu genezake produktu kosmetikoak saltzen dituzten dendak edota enpresak. Hain zuzen ere, enpresa hauek jada garatuta egonik eta erosle finkoak izanez, errazagoa da irabaziak lortzea. Guk, aliatu posible bezala identifikatu ditugun enpresak honako hauek dira:

- **Douglas:** denda hau oso famatua da gure herrialdean eta kosmetika produktuak saltzen ditu. Beraz, gure produktuak eskaini ahal izango dizkiegu beraiek salmentan jarri ditzaten. Honi eker, Douglasen bezero finkoei gure produktua eskaintzeko aukera izango dugu.

DOUGLAS

- **El Corte Inglés:** merkataritza-gune honek marka nahiz prezioa desberdinetako kosmetikoak saltzen ditu adin guztietako kontsumitzaileentzat. Hortaz, baliagarria gerta liteke gu beraiekin elkartzeari gure produktuak merkaturatzeko.

El Corte Inglés

- **Yves Rocher:** denda honek, bereziki, produktu zein kosmetiko ekologikoak, jasangarriak eta beganoak saltzen dituzenez, baliteke beraienez ere interesgarria izatea gure produktuak beraien dendatan saltzea, horrela kosmetiko aukera gehiago egongo direlako erosleentzat.



YVES ROCHER
FRANCE

Bestalde, ezinbestekoa da guretzat erosle zein hornitzaileekin harremanak izatea, horrela, guk behar ditugun materialen eskuragarritasuna bermatzeko. Izan ere, gure produktuak ekoizteko beharrezkoak ditugun baliabideak izateko, zenbait hornitzaile identifikatu eta hauen artean hoberena aukeratu beharko genuke.

Gure enpresaren kasuan, kosmetika beganoa eta jasangarria saldu zein produzitu behar dugunez, hauek ekoizteko lehengaiak eskuratu behar ditugu. Hala nola, glicerina, tinteak, kosmetikak ontziratzeke poteak...